

2011KO AZAROAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zazpiak eta erdietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko urriaren 28ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. Haurreskola Seaskarako berritze-obrak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeke baldintza plegua onartzea

Ezagutzera eman dira, aipatutako obrak kontratatzeke proiektua eta baldintza plegua. Hirigintza Batzordeak egindako proposamenaren arabera, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“Deialdi publikoa egitea, prozedura irekiaren bitartez eta publizitatearekin Haurreskola Seaskarako berritze-obrak kontratatzeke. Horretarako proiektua eta baldintza administratiboa onartu dira. Lizitazio prezioa, 281.883,81 €koa da, BEZik gabe, ez da klasifikaziorik eskatzen eta adjudikazio irizpidea, prezio baxuarena izango da. Egikaritze epea, 12 aste eta proposamenak aurkezteke epea, 26 egunekoa, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.”

3.- ESKAERA ETA GALDERAK. Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeke besterik ezean, bilera goizeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.